



739/2024 EBAZPENA, URRIAREN 7KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN DEN BI ADMINISTRARI LANPOSTU ALDI BATERAKO BARNE-MUGIKORTASUNAREN / ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIAN.

LANPOSTUAK: ADMINISTRARIA

Zuzendaritza	Zuzendariordetza	Antolakuntza-unitatea	HE	Derrigortasun-data	Lanaldia	Lanpostuak
Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritza	Informatikako eta Informazio Sistemetako Zuzendariordetza	ZN - Negozioa	2	2013/12/03	Lanaldi zatitua	1
Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritza		ZN - Zerbitzu Estrategikoak	2	2005/06/01	Lanaldi zatitua	1

LANALDIA: Zatitua.

BETEKIZUNAK: (Agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CV aplikazioan badaude).

Aldi baterako barne-sustapeneko eskatzaileentzat:

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile finkoa edo langile lan-kontratudun finkoa izatea.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila berekoa edo baxuagokoa den beste kategoria batekoa izatea.
- Ez izatea karrerako funtzionioko, estatutupeko langile finkoko edo langile lan-kontratudun finkoko izendapenik Administrari Laguntzaile kategorian, izendapen edo kontratu horrekiko interesdunak daukan egoera administratiboa edozein izanda ere.
- Zuzendaritza Nagusiari atxikita egotea langile finko gisa, Zuzendaritza Nagusiko langileen barne-sustapenaren kasuan.
- Zuzendaritza Nagusia ez den beste zerbitzu-erakunde bati atxikita egotea langile finko gisa, zerbitzu-erakundeen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, egoera horretan urtebete baino gehiago egotea, etenik gabe.
- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritako titulazioa izatea eta iragarritako arazken EPEan kategoria honen oinarrietan ezarritako gainerako titulazio-eskakizunak betetzea.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile finkoa edo langile lan-kontratadun finkoa izatea edo Osasun Sistema Nazionaleko gainerako osasun-zerbitzuetako karrerako funtzionarioa edo estatutupeko langile finkoa izatea Administrari Laguntzailea kategorian.
- Zerbitzu aktiboan egotea, eta lanpostuak betetzeko eskaera ez egitea norberak lanpostua jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzeagatik atxikita dagoen zerbitzu-erakundean.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

MEREZIMENDUEN BAREMOA: (agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CV aplikazioan badaude)

Aldi baterako barne-sustapenaren eskatzaileentzat:

- EPEko oposizio-fasea (gehienez, 100 puntu).
- Lan-esperientzia (gehienez, 80 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Lan-esperientzia, kategoria honen azken lekualdatze-lehiaketaren oinarrien arabera. (gehienez, 47,5 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Euskararen ezagutza

Euskararen ezagutzaren balorazioari dagokion puntuazioa Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko 67/2003 Dekretuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik egingo da.

ESKABIDEAK AURKEZTEA:

Interesdunek Osakidetza Zuzendaritza Nagusiaren Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz), beren datu pertsonal guztiekin, curriculum vitae dokumentatuarekin (aplikazio informatikoan baliozkotuta daukatenek izan ezik) eta eskatutako ezagutza espezifikoa egiaztatzeko egokitutako jotzen duten dokumentazioarekin batera.

Interesdunek aurkeztutako eskabidean, lortu nahi diren plaza guztiak adierazi beharko dira, baita zein ordenatan lortu nahi den ere.

Eskabideak aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa izango da, deialdia webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LEHENTASUN-HURRENKERA:

Lanpostua betetzeko lehentasun-hurrenkera honako hau izango da:

1.–Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabilia ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo atalean adierazten dena erabiliko litzateke.

2.–Zerbitzu-eginkizunak. Sistema hori erabilia ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo paragrafoan adierazten dena erabiliko litzateke.

3.–Zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena.

BALORAZIO BATZORDEA:

Balorazio Batzorde bat osatuko da. Giza Baliabideen Hautaketako eta Horniketako zuzendariordea izango da batzordeburua, eta hauexek izango dira bertako partaideak: Finantza Zuzendariordetzako zerbitziburua eta Kontratazio Administratiboko zerbitziburua eta teknikari juridiko bat (idazkaria izango da).


HAUTAKETA-PROZEDURA:

Balorazio Batzordeak interesdunek behar den garaian eta moduan aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du. Aurrekoa ikusirik, proposamena egingo da dagokion izendapena formalizatzeko. Balorazio Batzordeak lanpostua bete gabe utzi ahal izango du, izangaiek eskatutako eskakizunak betetzen ez badituzte.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa ezar daskioke Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 7a.



Josune Reteigi Ormazabal
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

**GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA,
JOSUNE RETEGI ORMAZABAL**